

## **FRONTOIAREN ERABILERA PUBLIKOAREN ALDE DEBEKURIK EZ! BETORIK EZ!**

Amasa Villabonako udalak, herriko hainbat eragilek Behar Zana frontoian antolatzen zituzten ekintzei baimenik ez ematea erabaki du.

Frontoi hau udal jabetzakoa da, publikoa, beraz, herritar eta herriko elkarte guztiek izan beharko lukete erabiltzeko eskubidea. Normala da udalak frontoiaren erabilerarako baldintza edo betebeharrak batzuk adostea eta baita pilotak (entrenamendu eta partiduek) lehentasuna izatea. Baina ez da normala herriko elkarteek antolatutako ekintza batzuei hasieratik betoa ezartzea eta debekatzea.

Gainera, alkatetzak aldebakartasunez erabaki du erabilera eskaera egin duten elkartei baimenik ez ematea, orain arte eskatzen ziren baldintzak betetzen ziren edo ez kontuan hartu gabe. Udal gobernua bere kabuz erabaki nahi izan du frontoian zer egin daitekeen eta zer ez.

Azkenaldian mota guztietako ekintzak antolatzen dituzten herriko elkarte eta eragileek gero eta traba gehiago jasotzen dituzte udalaren aldetik eta baimen eskaerei ezezko erantzunak jasotzea izan da azken urratsa. Eskuzabaltasunez, irabazi ekonomikorik lortzeko asmorik gabe, boluntario gisa lan eginez... herriari bizitasuna ematen dioten ekintzak antolatzen dituztenei, errespetua zor zaie, eta ez dute udalaren aldetik oztopo, zailtasun, zango-traba eta debekurik merezi.

Kontuan izan behar dugu Villabonan frontoia dela teilatuta azpian eurretik eta haizetik babestuta, dagoen espazio publiko zabal ia bakarra. Horregatik, inguruko herri guztietan egiten den bezalaxe, frontoia erabilera anitzetarako espazioa izatea guztiz logikoa da.

Ondorioz, Amasa Villabonako udalari honakoa eskatzen diot:

**Udalak ezarritako debekuak bertan behera uztea eta orain arte bezala, herriko elkarte eta eragileek Behar Zana frontoia erabili ahal izatea, nahi dituzten ekintzak antolatzeko.**

Atxikimenduak:

- Behar Zana pilota eskola
- Seaska haur eskola
- Oinkari dantza taldea
- Danok Danena halterofilia taldea
- Irrintzi elkartearen
- Egintza futbol taldea
- Erniobea guraso elkarte
- Flemingoak guraso elkarte
- Billabonako EHE
- Malkar aisialdi taldea
- Amasa-Villabonako talde feminista
- Oria merkatari elkarte
- Amasako Martina kultur elkarte
- Katakunbak (Villabonako musikariak)
- Herriaren goilara
- Onddo gazte asanblada
- Amasa-Villabonako Gure Esku Dago
- Uxo-Toki elkartearen
- Beertoki